

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Nola aurkitu bezeroak?

Bezeroak aurkitzeko, kanalaren atalean xehetasun gehiagoz azaldu duguna egingo dugu. Lehenengo, sare-sozialak sortuko ditugu gehiago publizitzeko eta arazoak badaude kontsulta azkar bat egiteko. Sare sozialen eta horma-irudi bidezko propaganda egingo dugu, gazteentzat gertutasun gehien duen metodoa delako. Gainera, zerbitzua gaztaroari zuzenduta dagoenez, ahoz-ahozko komunikazioa oso garrantzitsua izango da, laguneri iritzia pisu handia baitu.

Nola mantendu bezeroak?

Erabiltzeak gure zerbitzuarekin pozik daudela bermatzeko, aplikazioan bertan atal bat izango dugu bakoitzak bere kezka eta iritzia libreki adieraz ditzan. Halaber, telefono zenbakia egongo da eskugai 09:00-20:00 bitarte. Era berean, hilean behin zuzendaritzak mezu bat bidaliko dio erabiltzaile bakoitzari bere azken zita nola joan diren jakin ahal izateko. Ez bada zitarik egon azken hilabetean, "feed-back" bat eskatuko da aplikazioa edo bere zerbitzuak hobetzeko.

Bestetik, pertsona batek bere zitarekin arazoren bat izan badu, segituan hau konpontzen saiatuko gara, bezeroekin kontaktuan jarritz. Arazo hori oso handia bada, erremedio legalak hartuko dira. Honek denak, zuzendaritzaren eta erabiltzaileen harremana hobetuko du.

Nola hazi araziko dituzu bezero horiek?

Arrakastatsuak izan ziren bikotekideak aplikazioaren hasieran jarriko ditugu, baita publizitatean erakutsi ere. Hau dela eta, bezero berriek ikusiko dute maitasuna gure aplikazioaren esker topatzea lan erraza dela. Bestalde, hastag bat sortuko dugu, #loveorain, eta ondoren bikotekideek igotako argazki horiekin lehiaketa bat egingo dugu. Hastag hori erabiliko duen argazki politenak afari bat dohain jasoko du. Honen esker, aplikazioa deskargatzea eta argazkiak igoaz, jende gehiagok deskargatuko du gure aplikazioa, guk ezer ordaindu gabe.